

Getxo Antzokia

ABRARA ZABALDUTAKO LEIHOA, EMOZIOEN AGERTOKIA... GURE INGURUKO ARGI KULTURALA



4B Fasea: Beira eta egurra Getxo Antzokia eta Musika Eskola estaltzeko

- **Adjudikazio-prezioa:** 5,5 milioi euro (500.000€-ko aurretea lizitazioari dagokionez).
- **Lanak egiteko aurrekustitako epea:** 2013ko urte-hondarrean hasi. 2014.-eko bukaeran amaitu.
- **Material nobleak:** egurra, beira eta harria, berriaren eta zahararen arteko kontrapuntuarekin (Getxo Antzokia eta Musika Eskolako fatxadetako beirateak eta San Nikolas elizako harria). Antzina Europan saldu ziren itsasontziak gogoratuko dituzte zurezko elementuek.
- **Berezitasuna:** Eraikina iragazkorra izango da, kanpoaldetik barrurantz zein barrutik kanpoalderantz, San Nikolas eliza eta bere inguruaren ikuspegi ederra bermatuz.
- **Itxura:** Bere ingurutzalearen edertasuna ikusiko da, behin betiko itxura emango dion jantzia, eta horrekin batera, Algortako erdigune historikoko ingurune osoaren azken argazkia ere.

4A Fasea egiten ari da: estalkiak, barrualdeko zatitzeak eta instalazioak (airea girotzekoak, linea elektrikoak, iturgintza, ...) egiteko lanak azken etapan dira 2013ko hondarrean amaituko baitituzte.



5. Fasea: San Nikolas plaza eta bere ingurune osoaren urbanizatzea



- **Egungo egoera:** Lizitazio-eperean barruan dago une honetan eta lanak 2014ko Aste Santu aldera hasiko direla aurrekusten da.
- **Aurrekontua:** 3 milioi euro inguru.
- **4.000 m²-ko oinezkoentzako esparru bakarra:** Urbanizatuta, San Nikolas plaza eta Getxo Antzokioa batu egingo dira, hesi arkitektonikoak kenduz. Oinezkoentzako eremu paregabea, egungoa eta erabilgarria bihurtuko da, 54 zuhaitz berriekin apaindua.
- **Agertoki handia:** San Nikolas agertoki bezala erabiltzeko beharrezko instalazio guztiak izango dira bertan, behar duen tipologiaren arabera eta antolatuko den jardueraren arabera, egitura finko eta iraunkor baten oztoporik gabe.
- **Hiri-altzariak:** Eredu osoan zehar aulkilak, bizi-aparkalekuak eta paperontziak izango dira... eta egurra, beira eta altzairu herdoilgaitza bezalako materialak erabiliko dira, behagaine granitozko lauza handiekin nahastuko direnak.